

BIZKAIKO ELIZAREN GIZARTE ERAKUNDEEN **MANIFESTUA**

Elizaren Gizarte Erakundeok 2012ko ekainaren 11n bildu ginen Bilbon, Urteroko II. Topaketan. Horren harira, gure oinarriei eta gizarte osoari jakinarazi nahi diegu egungo egoeraren aurrean daukagun jarrera. Manifestu honen bidez, errealitateaz egiten dugun irakurketa kritikoa azaldu nahi dugu. Irakurketa hori Bizkaiko beste gizarte-erakunde batzuekin sare eta plataformetan egiten dugun lanaren osagarria da.

Gizarte-ereduaren krisiaren aurrean...

1. “Ongizate Estatua”, giza eskubideen garapena antolatzen duen eredia den heinean, Europara bakea ekarri zuen lorpen historikoa da, eta oinarritzko gaietan pertsona guztiei gutxieneko bizi-baldintzak bermatzen dizkien gizarte eredia. Hemen, gure inguruan, “Gizarte Zerbitzuen Sistemaren” eta “Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistemaren” garapenak pertsonentzat oinarritzkoak diren prestazioak eta zerbitzuak emateko lege esparrua eta Administrazioaren erantzukizun-maila ezarri dute, bereziki egoerarik zailenetan dauden pertsonen dagokienez.
2. Krisia dela-eta, badirudi arrazoi ekonomikoa beharizanen gainetik jarri dela; areago, premia larrian dagoen gizartearen zati batek egungo egoeraren ondorioak latzenak sufritzen dituenen. Krisi honen jatorriarekin zerikusirik eta erantzukizunik izan ez duten pertsonak eta familiak dira zigorrik gogorrena jasotzen duten biktimak. Gizarte Ereduan egindako doikuntza batzuek eskubideak eta parte-hartze soziala mugatu dituzte, eta datu horiek bereziki kezagarriak dira. Toki mailan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) lortzeko baldintzak aldatu dira, baita Gizarteratzeko Laguntza Bereziak lortzeko baldintzak ere. Estatu mailan, Lan Erreforma eta 16/2012 Lege Dekretua daude, eta beste gauza batzuen artean, Espainian bizitzeko baimenik ez duten atzerritarrei osasun arreta jasotzeko eskubidea kentzen diete.
3. Gainera, konturatu gara krisi egoera honetan pertsona ahulenenganako bazterkeria eta estigmatizazioa gertatzen ari dela gizartearen aldetik. Komunikabideek tratamendu desegokia ematen diete albiste batzuei, eta politikariek eta erakunde batzuek gizarte-laguntzen iruzurra aipatzen dute edo zerbitzu publikoetan denok arreta berdina izatea mugatu behar dela esaten dute. Adierazpen horiek guztiek Giza Eskubideen arloko inboluzioa erakusten dute, eta Elizak pertsonaren duintasunaren aitortzari buruz etengabe esaten duenaren aurka doaz, erabat.

... zerbait egin beharra dago:

4. Orain inoiz baino beharrezkoagoa dugu jarrera aktiboa hartzea eta ekitea, gure gizartea gizatiarrago egiteko, pertsonak elkarrengana hurbiltzeko eta denok herritar egiten gaituen Gizarte Eredua defendatzeko. Krisiaren eraginari sistemaren murrizketen ondorioz sortu daitezkeenak gehitzen badizkiogu, gizarte-haustura baterantz joan gaitezke; ingurune hori gero eta indibidualistagoa izango da, pertsonak gero eta bakartuagoak eta ez-solidarioagoak izango dira, eta horren ondorioz, ahultasun eta bazterkeria-egoerak sortzeko arrisku handiagoa egongo da.
5. Behean sinatzen dugun Bizkaiko Elizaren gizarte-erakundeok gure konpromiso pertsonal, komunitario eta instituzionala indartu nahi dugu, pertsona eta talde ahulenen defentsan eta laguntzan. Premiarik gehien duten pertsonen harrera egin, lagundu eta sustatzen dituen Gizarte Eredu baten aldeko apustua egiten dugu, horiek baitira “eraginkorra izateaz gain, kristau-karitateari zentzua ematen dioten jarrerak”. Eta indarrak batzen jarraituko dugu, justizia sozialean eta pertsona guztien errekonozimenduan oinarritutako gizarte bat eraikitzeko lanean ari diren beste eragile batzuekin.
6. Administrazio publikoei premiazko deia egin nahi diegu, beren erantzukizuna den heinean, eskubideak eta ondasunen birbanaketa bermatu dezaten, pertsona ahulenen eta babesik ez dutenen ondoan egon daitezen. Eta politikan eta instituzio mailan erantzukizuna duten pertsona guztiei, beti eta bereziki hauteskunde kanpainaren atarian, beren diskurtsoak gizarte abegitsu eta inklusibo baten defentsaren ildotik bideratu ditzatela.
7. Eta gizarte honetako kide bakoitzari, denok erantzukizun apur bat daukagula gogorarazi: “xume bizi, batzuk, besterik gabe, bizi daitezen”.

Erakunde sinatzaileak:

Bidesari Elkartea, Elkarbanatuz Elkartea, Sortarazi Elkartea, Zubietxe Elkartea, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas, Iralabarriko Antonio Deuna Jantokia, EDE Taldea), Adsis Fundazioa, Amigó Fundazioa, Argia Fundazioa, Ellacuría Fundazioa, Itaka-Escolapios Fundazioa, Gizakia Fundazioa, Harribide Fundazioa, Lagungo Fundazioa, Proclade Yapanay Fundazioa, Pasiotar Ahizpak, Karitatearen Alabak, Religiosos Amigonianos, Karitateko Jesusen Mirabeak, Stella Maris.

Bilbon, 2012ko ekainaren 11n.

MANIFIESTO DE LAS ENTIDADES SOCIALES DE IGLESIA DE BIZKAIA

Las Entidades Sociales de Iglesia, reunidas el 11 de junio de 2012 en Bilbao en el II Encuentro Anual, queremos trasladar a nuestras bases y al conjunto de la sociedad nuestro posicionamiento ante la situación actual. Este manifiesto quiere expresar nuestra lectura crítica de la realidad, siendo complementaria con el trabajo y labor de incidencia que ya realizamos en las redes y plataformas con otras entidades sociales en Bizkaia.

Ante la crisis del modelo social...

1. El 'Estado de Bienestar', como modelo que articula el desarrollo de los derechos sociales, es un logro histórico que trajo a Europa la paz y constituye un modelo social que garantiza unos mínimos vitales en cuestiones básicas para todas las personas. Aquí, en nuestro entorno, el desarrollo del "Sistema de Servicios Sociales" y del "Sistema de Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social", han establecido en los últimos años el marco legal y el grado de responsabilidad de la Administración en la cobertura de prestaciones y servicios considerados básicos para el conjunto de las personas, especialmente para aquellas que se encuentran en situación de mayor dificultad.
2. Con la crisis, la razón económica parece imponerse a las necesidades, cada día más apremiantes, de una parte de la sociedad que sufre las duras consecuencias de la situación actual. Personas y familias que menos responsabilidad han tenido en el origen de esta crisis resultan ser las víctimas más castigadas por ella. Algunos ajustes en el Modelo Social que suponen el recorte de derechos y la exclusión de la participación social son especialmente preocupantes. En el ámbito local, la reforma de los requisitos de acceso a la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y el cambio de requisitos para la obtención de las Ayudas Especiales para la Inclusión. En el ámbito estatal, la Reforma Laboral y el Decreto Ley 16/2012 que elimina, entre otros derechos, el de la asistencia sanitaria a las personas extranjeras sin autorización de residencia en España.
3. Además, observamos con preocupación que en esta coyuntura de crisis se va creando un imaginario social de rechazo que excluye y estigmatiza a las personas más desfavorecidas. El tratamiento que los medios de comunicación dan a determinadas noticias y algunas declaraciones políticas o institucionales sobre el fraude en las ayudas sociales o la necesidad de restringir la atención de todas las personas de una forma equitativa en los servicios públicos, representan una involución en materia de Derechos Humanos y son contrarias a la práctica que nos recuerda continuamente la Iglesia de reconocimiento de la dignidad de la persona.

...es necesario actuar:

4. Ahora es cuando más falta hace asumir un papel activo y protagonista para defender el Modelo Social que humaniza nuestra sociedad, acerca a las personas y nos hace ciudadanas. No podemos obviar que si se suman los efectos de la crisis a los que pueden surgir como consecuencia de las restricciones del sistema, podemos derivar hacia una fractura social, en un entorno con mayor riesgo de vulnerabilidad y exclusión y una sociedad cada vez más individualista, con personas más solas y menos solidarias.
5. Las entidades sociales de Iglesia de Bizkaia, abajo firmantes, queremos reforzar nuestro compromiso personal, comunitario e institucional, en la defensa y acompañamiento de las personas y colectivos más vulnerables. Apostamos por un Modelo de Sociedad que acoge, acompaña y promociona a las personas que más lo necesitan; por el desarrollo de “actitudes que dan sentido a la caridad cristiana que trata además de ser operativa”. Y seguiremos sumando esfuerzos con otros agentes en la construcción de una sociedad basada en la justicia social y el reconocimiento de los derechos de todas las personas.
6. Instamos a las Administraciones Públicas a que desde su responsabilidad contribuyan a asegurar los derechos y la redistribución de los bienes, velando por las personas más débiles y desprotegidas. Y a todas las personas con responsabilidad política e institucional, en todo momento y en especial en vísperas de una campaña electoral, a que orienten sus discursos y planteamientos hacia la defensa de una sociedad acogedora e inclusiva.
7. Y a cada miembro de nuestra sociedad a asumir que tiene la responsabilidad de “vivir sencillamente para que otros sencillamente puedan vivir”.

Entidades firmantes:

Asociación Bidesari, Asociación Elkarbanatuz, Asociación Sortarazi, Asociación Zubietxe, Cáritas Diocesana de Bilbao-Bilboko elizbarrutiko Cáritas, Comedor S. Antonio de Iralabarri, EDE Taldea, Fundación Adsis, Fundación Amigó, Fundación Argia, Fundación Ellacuría, Fundación Itaka-Escolapios, Fundación Gizakia, Fundación Harribide, Fundación Lagungo, Fundación Proclade Yapanay, Hermanas Pasionistas, Hijas de la Caridad, Religiosos Amigonianos, Siervas de Jesús de la Caridad, Stella Maris.

En Bilbao, a 11 de Junio de 2012.